

SINIZEN G.I: INDRA PROIEKTUA

Lur planetan energia lortzeko bide asko badago ere, bi taldetan sailka daitezke. berriztagarriak eta ez berriztagarriak. Gure xede nagusia energia berriztagarrietako bat ustiatzea da, modu berri baten bitartez.

Tximistak giza ahalmenetik kanpo dauden energia iturriak dira, eta ez dira inoiz erabili modu egokian gure probetxurako. Hori aldatzeko gure ideia aurrera eramango dugu: *Indra* proiektua. Honen bidez, tximisten energia lortzeko aukera izango dugu, era eraginkor eta garbi batean. Gure enpresak, eskurapen eta sakabanatze ekintzak beteko ditu, tximistetatik energia lortzen eta gure bezeroetaraino eramaten.